



TXIRRITA MENDI IBIALDIA MAIATZAREN 23AN

Zazpigarren edizioan izena emateko epea zabaldu dute Oargi elkarteko kideek; 500 lehenek hartuko dute parte >3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2010-04-30

VIII. URTEA 1988. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Alkiza sarreran aurkitzen da 'Etxe animaliak' izeneko totem-a. ESTI EZEIZA

HERRI ESKOLAKO IKASLEEK EGIN DUTE ALKIZAKO TOTEM-A

ARTEA Atzo goizean inauguratu zuten 'Etxeko animaliak' izeneko eskultura; Koldobika Jauregiren laguntza eduki dute ikasleek 6

Herri akusazioek auzi ekonomikoa dute jomugan

'EGUNKARIA AUZIA' Epaiketa Auzitegi
Nazionalen egitea nahi dute AVTk eta DyJk 7



Maiatza Saltsan 2010 aurkeztu zuten Koldo Mitxelena. E. MAIZ

'Maiatza Saltsan 2010'ean, Otaño izango da izarra

ZIZURKIL Heriotzaren mendeurrenean, ekimena
Euskal Herriaren omenaldia izatea nahi dute 4



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H.
INSTITUTUA



"ATE IREKIEN EGUNA"

MAIATZAK 4, ASTEARTEA

15:00etatik 21:00etara

Ikasle, guraso, langile, enpresa eta
interesatu guztiei zuzendua.

Ikastetxeko instalazioak eta
eskaintza ezagutzeko bisita gidatua.

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: TOLOSALDEA idatziz 5533ra

K **Kirol jarduera****Gaur, apirilak 30****Pilota**

■ Beotibar pilotalekuan, 19:15ean, Herri Arteko Txapelketako bigarren kanporaketako partida: Tolosa - Azpeitia.

Bihar, maiatzak 1**Areto futbola**

■ Usabalgo beheko kantuan, 10:00etan, jubenil mailakoen partida: Laskorain - Lasarte.
■ Usabalgo beheko kantuan, 12:00etan, nazional mailako partida: Laskorain - La Bellota.

Saskibaloia

■ Usabalgo goiko kantuan, 10:00etan, infantil mutilak: TAKE Oria - Astigarraga.
■ Usabalgo goiko kantuan, 12:00etan, infantil neskek: Ego TAKE - Gamon.
■ Usabalgo goiko kantuan, 12:00etan, nazional mailako partida: Bide Bide Ibiza - Urdaneta.

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, Infantil txiki mailakoen partida, 10:00etan: Tolosa CF - Touring.
■ Usabalgo futbol zelaian, 11:45ean, lurraldekako lehenengo mailakoen partida: Amarotz - Allemlu.
■ Berazubiko futbol zelaian, lurraldekako ohorezko mailako partida, 11:00etan: Tolosa CF - Beti Gazte.

Etzi, maiatzak 2**Areto futbola**

■ Usabalgo beheko kantuan, 12:00etan, Gipuzkoako Ligako lehenengo mailako partida: Tolargi - Azitain Erretegia.

Eskubaloia

■ Usabalgo beheko kantuan, 09:15ean, infantil mailakoen partida: Tolosa - Pulpo.
■ Usabalgo beheko kantuan, 10:30ean, jubenil mailakoen partida: Tolosa - Usurbil.
■ Usabalgo beheko kantuan, 12:00etan, senior mailakoen partida: Tolosa - Leizaran.

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, emakumezko kadeteen F-8 partida, 10:00etan: Tolosa CF - Bergara.
■ Usabalgo futbol zelaian, emakumezko kadeteen F-11 partida, 11:30ean: Tolosa CF - Arizmendi.

Udan haur sahararrak etxean hartzeko kanpaina abian da

Gizartea » Maiatzaren 20a baino lehen eman beharko dute izena ekimenean parte hartu nahi duten eskualdeko familiek.

IÑIGO TERRADILLOS

2000. urte aldera hasi ziren udan haur sahararrak Tolosaldera etortzen, eta ordutik urtero urtero 15-20 gaztetxo inguruk igaro izan dute oporraldia gurean. Hala izango da aurten ere, Oporrak Bakean ekimena ere berriro martxan jarri baitute. Garrantzitsuena behar dute orain, saharar haurrak euren etxeetan hartuko dituzten familiak, alegia.

Tolosaldeko hainbat udaletxeek finantzatzeko ekimena eta Frente Polisarioko ordezkariak kudeatzen du. Tolosaldea Sahararekin elkarreak ere parte hartzen du, ahal duen neurrian lagunduz. Familiek, beraz, ez dute ezer ordaindu beharrik izaten, soilik haurra etxean izateak dituen gastu arruntak.

Ekimenaren helburuak

Tolosaldeko Sahararekin elkarteko kideek herenegun egin zuten aurkezpenean azaldu bezala, hainbat dira Oporrak Bakean programak dituen helburuak: «Sahararrak



Beste urteetako familia hartzaile batzuk, herenegungo aurkezpenean. I.T.

1975. urtetik bizi dira errefuxiatu bezala Aljeriako basamortu gogor eta zakarrean dauden kanpalekuan. 7 eta 12 urte bitarteko haur hauek udako bi hilabeteetan behintzat handik ateratzea eta uda desberdin eta polit bat igarotzea lortzen da», adierazi zuen Ana Traperok.

Halaber, beste errealitate bat ezagutzeko aukera izateaz gain, euren osasunarekin loturiko helburuak ere baditu ekimenak: «Mediku azterketak egiten zaizkie, eta dituzten nutrizio gabezia handiak eta hango egoera txarra kontuan izanik, hori oso garrantzitsua da. Gainera, lehenaldiz etortzen diren haurrei txertoak ematen zaizkie».

Bestalde, han udan izaten dituzten tenperatura altuak ekidin ahal dituzte gurera etorrita.

Bertako egoeraren berri izan

Gaztetxo hauek gure artean izateak, bestalde, euren egoera hobeto ezagutzea ahalbidetzen du, «beraiek sahararrak nola bizi diren eta zergatik dauden horrela kontatuz, urteetan pairatzen ari diren bizimodu zaila ulertu baitezakegu».

Hau gutzia posible egiteko, ordea, prest dauden familiak behar dira. «Saharar herriari elkartasuna adieraztea eta laguntzeko gogoia izatea eskatzen zaie familiei, eta hauek bikoteak, jubilatua, gazteak... izan daitezke». Ekimenean

parte hartzeko edota edozein zailtzearako Tolosaldeko udaletxeetako Gizarte Zerbitzuetara jo daiteke, Tolosaldea Sahararekin elkartera (654 40 72 00 edota 645 71 07 89) edota www.oporrrakbakean.jimdo.com webgunera. Maiatzaren 20a da izena emateko azken eguna.

Esfortua egiteko deialdia

Udaletxeek finantzatzeko Oporrak Bakean ekimena, eta krisia dela eta bizi duten egoeraz jakitun direnez, aurten ere beste urteetako esfortua egin dezaten eskatzen diete elkartetik, «gure asmoa izako haur kopuru bera behintzat etorri ahal izatea baita».

Bestalde, Tolosaldea Sahararekin elkarrea Maiatzak 20 lantaldearekin, beste proiektu bat ari da gauzatzen Oporrak Bakean ekimenaren barruan. «Helburua udan etortzen diren gaztetxoekin aterpetxe desberdinak sortzea da. Agian herritar batzuk ezin dute etxean umerik hartu, baina lagundu nahi dute, eta kontu korrontean (CAN 2054 0488 3991 5799 5621) dirua sar dezakete, eta gero diru horrekin haurrak aterpera ekartzeko aukera izango dugu», azaldu du Eli Eizagirik Maiatzak 20 lantaldeko kideak.

Ekimena aurten azkeneko antolatzea da elkartekoen itxaropena. «Oporrak Bakean sahararrek herriak bizi duen ezohiko egoeran laguntzeko sortu zen, eta gatazkari irtenbidea ematen zaionean euren lurraldera itzuliko direnez ekimenean beharrik ez da izango. Berri pozgarriena hori litzateke».

«Aurten ere Hamdi ikusteko gogoaz gaude»

EIDER EPELDE » Familia hartzailea

I. TERRADILLOS

Eider Epelde altxotarrak iaz hartu zuen bere etxean estreinakoz haur saharar bat. Normalean gertatzen den bezala, esperientzia «oso polita eta aberatsa» izan zen, eta aurten ere errepikatzeko «gogotsu» dago. **Nolatan animatu zinen udako bi hilabeteetan haur saharar bat etxean hartzera?**

Nire lagun batek aspalditik hartu izan du saharar gaztetxo bat. Hor-

tik nuen ekimenaren berri, eta ordutik nik ere parte hartu eta laguntzeko gogoia izan dut. Gainera, ez da soilik zuk haurrari eman diezaiokeguna, beraiek ere asko ematen dute, eta nik errealitate hori bizitu nahi nuen. Pasa den urtean lanaren aldetik eta haur bat hartzeko aukera ikusi nuen ez animatu egin nintzen.

Eta zer moduzko esperientzia izan zen?

Oso ona. Haurra etxean hartzea erabaki nuenean sahararren egoeraz gehiago jakin nahian hasi nintzen, gehiagi ez bainuen ezagutzen. Etorri aurretik urduritasun pixka batekin egon nintzen, baina gero dena oso ondo joan zen. Haurra oso ondo konpondu zen nirekin eta nire bikotearekin, eta nire herrian, Altzon, lagun ugari egin zituen. Pentsa, ean noiz etorriko den galdetzen didate. Nire familiarekin eta bikotearekin familiarekin oso ondo moldatu zen. Nahiz eta euren ohiturak izan gure ohituretara oso erraz moldatu zen. Esperientzia oso ona eta polita izan zen.



Eider Epelde, Harkaitz bikotea eta Hamdi haur sahararrekin. HITZA

Zergatik da hain garrantzitsua haur hauek uda gurean igarotzea?

Sendagilearengana joaten dira, ondo jaten dute, eta ondo pasatzeko aukera dute gauza berriak ikasiz. Oso onuragarria da beraientzako. Pasa den urteko abenduan, gainera, errefuxiatuen kanpalekuetara joateko aukera izan nuen, euren bizimodu bertatik bertara ikustera. Han izan aurretik udan gurera etortzea oso onuragarria zela pentsatzen nuen, baina hango errealitatea gertutik ikusi ostean, are eta onuragarriagoa iruditzen zait, oso zaila baita hango egoera.

Aurten ere errepikatu egingo duzue. Gogotsu?

Bai, gogo handiarekin gaude, eta badakigu bera ere gogotsu dagoela guregana etortzeko, orain gutxi hala esan baitzigen telefonoz. Azken batean, lotura handia sortzen da, eta guretzat Hamdi familiako beste kide bat bezala dela esan daiteke.

Nola animatuko zenuke jendea parte hartzera?

Esperientzia oso aberasgarria da eman eta jaso egingen baituzu. Lagundu, beste kultura batetik ikasi eta oso ondo pasatzen duzula esaten diot nik jendeari.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Pasaban eta Izagirre irrifarrea ezkutatu ezinik egon ziren. A. IMAZ

Edurne Pasaban eta Asier Izagirre Usabalen izan dira

ASIER IMAZ

Edurne Pasaban eta Asier Izagirre Tolosan izan ziren atzo. Zuzeneko webcam konexio baten bidez, Usabal kiroldegia eta Shisha Pagmako oinarrizko kanpalekuaren artean. Jokin Bildarratz alkateak modu horretan jakinarazi zion Udalaren erabakia Edurne Pasabani, hau da, Tolosako Alaba Kuttuna izendatu berri dutela.

Ondoren mendizaleen senideek Izagirrekin eta Pasabanekin hitz

egiteko aukera eduki zuten. Momentu politikak bizi izan ziren.

Usabal kiroldegian, Tolosako ikastetxe ezberdinetako hainbat haur elkartzu ziren eta hauek ere mendizaleekin hitz egiteko aukera izan zuten. Igo duten mendirik zailena zein izan den galdetu zioten adibidez. Pasabanek K2 eta azkena, Annapurna, aipatu zituen. Konexioa amaitzeko bi tolosarrentzat ikasleek bertso batzuk prestatu zituzten.



VI. Txirrita Mendi Ibilaldian 350 lagun irten ziren. Argazkian Igaratzako kontrol gunean. HITZA

VII. Txirrita Mendi Ibilaldian izena ematen duten 500 lehenek hartuko dute parte

Mendia » 3.200 metroko desnibela duen Ibilbidea Euskal Herriko iraupen luzeko zirkuiturako baliozkoa izango da.

rriko iraupen luzeko ibiltarien zirkuiturako baliozkoa izango da aurtengoa.

Partaidetza 500 pertsonetara dago mugatua. Parte hartzeko Oargiko web orrian inskripzio orria bete eta 10 euro sartu behar dira Euskadiko Kutzaren ondorengo zenbakian: 3035 0028 11 0281141038.

janaria eta edaria bi puntutan banatuko dituzte, Unagako putzuan eta Igaratzan. Hala eta guztiz ere, «motxila barruan zer eman, mendizaleetasun oinarrizko ezagupen bat» dela ere nabarmendu dute antolatzaileek.

ERREDAKZIOA

Tolosako Oargi Mendi Elkartek lau urtetik behin Aralarko gailurretan zehar mendi ibilaldi bat antolatzen du, hain zuzen ere, Txirrita Mendi Ibilaldia delakoa. Bernardo Bidaola Atxegaren, Txirritaren, omenez antolatzen dute, izan ere elkarteko bazkide izandakoa «mendizaleetasuna eta aber-tzaletasunaren eredutzat hartzen» dutela argitu dute.

VII. Txirrita Mendi Ibilaldia maiatzaren 23an egingo da eta 06:00etan emango zaio hasiera, Amezketako Bixente Aterpean, Aierbenean etxean. 9. Euskal He-

45 kilometro, 12 ordu inguru

Txirrita Mendi Ibilaldiak 3.200 metroko desnibela dauka guztira. Amezketatik-Amezketara 45 kilometro ibiliko dira mendizaleak. 45 kilometrotan 13 kontrol gune jarriko dituzte eta guztira 60 lagun inguru ibiliko dira lanean. Irteeran parte hartzaileei txartel bat emango zaie. Ibilaldiaren bukaerako kontrolerako zigilu guztiak erakusten dituztenei diploma eta kamiseta bana emango dizkiete.

Antolatzaileek azaldu dutenez,



Mendi Ibilaldiaren kartela. HITZA



Udalbiltzaren aurkako operazioa salatu zuten. A. IMAZ

Udalbiltzaren aurkako operazioa salatu dute VII. urteurrenean

ERREDAKZIOA

Atzo zazpi urte bete ziren «Espainiako gobernuaren aginduz» Udalbiltzaren aurkako eraso gertatu zenetik. Besteak beste, Tolosan eta Zizurkilen Bai Euskal Herriari herri ekimeneko kideek eta herritarrek «saminez» gogoratu zuten egun hori, elkarretaratzeko bidez. Gaur egun, epaiketaren ata-

rian, «beste behin ere euskal jendartearen borondateetik gauzaturiko egitasmoa epaituko dutela» azaldu zuten. Bide horretan ereintako lanak, «batzuk zapuztu dituzten arren», emaitza «oparok» eman dituela gogorarazi zuten: EHNA agiria, Xiberoa Garatzen, Euskal Herriaren Eskubideen kartea, Nazio Eztatidagunea...

XL TOWN

Arropa Garbia Kanpaina

Campaña Ropa Limpia

Zatuz ikustera zer ezkutatzen den moda industriaren atzean
Antzezlan dibertigarri eta esanguratsua!

Data: apirilak 30 (ostirala)

Ordua: 20:30

Lekua: Leidor antzokia (Tolosa)



Azkue, Agirre, Lazkano, Peñagarikano eta Amuriza Koldo Mitxelena izan ziren Maiatza Saltsan 2010 aurkezten. E. MAIZ

'Maiatza Saltsan'-en baitan Otaño Herriko Seme Kuttun izendatuko dute

Zizurkil » Euskal Herriaren omenaldia izatea nahi dute. Mahai ingurua, Seme Kuttun izendatzea, bertso jaialdi ezberdinak...

ENERITZ MAIZ

Urtero legez, Zizurkilen ate joka dute Maiatza Saltsan. Aurtengoan ordea, Pello Mari Otaño herriko semearen heriotzaren mendeurrena dela eta, egitarau oparoa prestatu dute. Hilabeteetan egindako lanaren fruituak atzo Koldo Mitxelena aurkeztu zituzten. Maria Angeles Lazkano Zizurkilgo alkatea eta Joxin Azkue Teodoro Hernandezena Kultur Taldeko kideez gain, ekitaldietan parte hartuko duten Eñaut Agirre, Anjel Mari Peñagarikano eta Xabier Amuriza bertsolariak izan ziren.

Maiatzaren 6an emango diote hasiera. Hernandezena Kultur Taldeak egin duen, Pello Mari Otañoaren *arnasa, 1857-1910* liburua

aurkeztuko dute Atxulondo Kultur Etxean 20:00etan.

Hurrengo egunean, Seme Kuttun izendatuko dute bere herrian eta horretarako 19:00etan osoko bilkura berezia egingo dute. Ondoren, plazan, bere irudiaren aurrean plaka jarriko dute. Bukaera herri afariarekin emango diote. 21:00etan izango da eta txartelak 25 euroren truke salgai daude Atxulondo eta Iriarte tabernetan.

Irazu, Agirre eta Lizaso

Herri afarian bertso saioa izango da eta Irazu, Agirre eta Lizaso ari tuko dira. Otañoen bertsoak abestuko dituzte eta aukeraketa bat egin behar izan dute. Ordubeteko saioa prestatu dute eta hiru gairen ingurukoak dira: atzerria, euskara eta abertzaletasuna.

Maiatzaren 9an, Otañoen *Aztarnak Zizurkilen* ibilaldi lasaia egingo dute, azalpen eta bertsoekin. Hilaren 12an, 19:30ean, Otaño: *Bat bitan banatzen da* mahai ingurua izango da, Pello Esnal eta Xa-

bier Eguzkitzerekin. Hilaren 20an, herriko hiru ikastetxeek Otañori ekarpena egingo diote eta guztiak Intxaur Frontoian elkartuko dira bere bertsoak abesteko. Bestalde, maiatzaren 3tik 14ra, *Euskal aztarna Argentinan* erakusketa ikusgai egingo da.

Argentina eta Mexikon bizi diren bi biloba, Zizurkilen izango dira ekitaldietan parte hartzeko.

Berto saio guztiz berezia

San Isidro egunez, 18:30ean, Xabier Amuriza gai jartzaille dutela, Amaia Agirre, Uxue Alberdi, Amets Arzallu, Aitor Mendiluze, Jon Maia, Unai Iturriaga eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak 100 urte atzera egingo dute. *100 urte, 100 bertso atzerriko oro-mina* obra eskainiko dute. Euskal Herriaren omenaldia izango da.

» MAIATZA SALTSAN 2010

Maiatzak 6, osteguna

■ **Liburuaren aurkezpena.** Pello Mari Otañoen *arnasa* liburuaren aurkezpena Atxulondo Kultur Etxean 20:00etan.

Maiatzak 7, ostirala

■ **Herriko Seme Kuttun.** Herriko Seme Kuttun izendatuko dute 19:00etan Udal Pleno Berezian.

■ **Omenaldia.** 20:00etan Otañori omenaldia egingo zaio herriko plazan bere irudiaren aurrean.

■ **Herri afaria.** 21:00etan Intxaur pilotalekuan. Eta ondoren, Eñaut Agirre, J.M. Irazu eta Sebastian Lizasoren ekitaldi berezia.

Maiatzak 9, igandea

■ **Otañoen ibilaldia.** 10:00etan Plazatik hasi eta Adunibar, Errekalde, Karidadeko Benta, Belen,

Izagirre, Iragorri zeharkatu eta berriro Plazara.

Maiatzak 12, asteazkena

■ **Mahai ingurua.** 19:30ean, Pello Esnal eta Xabier Eguzkitze, Atxulondo Kultur etxean, Otañoen obra literarioari buruz ariko dira.

Maiatzak 15, larumbata

■ **Berto Jaialdi handia.** Euskal Herriaren omenaldia Otañori 18:30ean. Amuriza eta Peñagarikano eta Iturriaga, Maia, Arzallu, Mendiluze, Agirre eta Alberdi.

Maiatzak 20, osteguna

■ **Bertsoak kantari.** 15:15ean, herriko hiru ikastetxeetako ikasleak Intxaur Frontoian, P.M. Otañoen bertsoak, ipuin kontalariaren laguntzaz kantatuko dituzte.

Zizurkilgo Atxulondon eta Tolosako Leidorren gaur antzerkia

Kultura » Tolosan *XL Town* eta Zizurkilen *Prest gaude! Greban gaude* antzerkiak izango dira. Biak 20:30ean.

E. MAIZ

Gaur 20:30ean, bi antzerki ikusteko aukera izango da. Bata Zizurkilgo Atxulondon eta bestea Tolosako Leidorren izango dira.

Zizurkilgo Atxulondo Kultur Etxean, *Prest gaude! Greban gaude* antzerkia izango da eta sarrera 3 euro ordaindu beharko da. Antzezleek hauxe aldarrikatu dute: «Borrokarako grina ez zaigu falta, arrazoiak baditugulako, adinean aurrera goaz, ez gara ginenak, tris-teziak eta alaitasunak partekatzen ditugu, barne eta kanpo aldaketak jasan ditugu, baina, emakumeak izanik, prest gaude zurrumbilo honetatik irteteko».

Leidor Antzokian, Pikor antzerki taldeak *XL Town* antzerkia eskainiko du euskarazko bertsoian. Sarrerak 10 euro balio du eta Leidorreko leihatilan edo Servikutxa, Telekutxa eta www.kutxa.net eros daitezke.

4. Poltsikoko Antzerki Lehiaketako hirugarren kanporaketa

Aduna » Asvinenea Elkarte Kulturalak antolatzen du. Ikusleen parte hartzea beharrezkoa da.

E. MAIZ

Asvinenea antolatzen duen 4. Poltsikoko Antzerki Lehiaketako hirugarren kanporaketa izango da gaur 22:30ean Adunako Zubitxiki poligonoan duten Arte eszenikoan laborategian.

Lehiaketa aurrera doa eta gaurkoa hirugarren kanporaketa izango da. Oraingoan sei obra ikusteko aukera izango da. Parte hartzaileen artean hauek izango dira: Loup Garou, Ramon Merlo, Edure Agirrezabala, Rosa Martinez, Pello Rosa Produzioak eta Karmakros. Ikusleek, gustukoena zein izan duten esateko aukera izango dute botoa emanez.

Sei horiek eskainiko dituzten ikuskizunetaz gain, gonbidatu bezala *Cuerda y Gancho* artista izango da. Berak, erritimo eta joko malabarekin eginiko ikuskizun txiki bat aurkeztuko du.

Markel Olanok babesa eman die eskola txikiei

Altzo » Ekainean Eskola Txikien Festa antolatuko duen Imaz Bertsolaria eskola bisitatzen izan da ahaldun nagusia.

IMANOL GARCIA

Eskola Txikien Festa ekainaren 13an izango da, Altzon. Horren harira Markel Olano ahaldun nagusiaren bisita jaso zuten atzo herriko Imaz Bertsolaria eskolan. «Lan-dagipuzkoa 32 egitasmoaren bitartez herriz herri bisitan joan garenean, udalek garrantzia berezia eman diote eskolei. Herriak indartzeko eta biziberritzeko eskolek garrantzi handia dute, azken finean bizia ematen diotelako eta horri babesa eman nahi diogu», azaldu zuen ahaldun nagusiak. «Zenbait herritan kezka jaso di-

tugu eskola txikien inguruan». Nahiz eta Aldundiaren eskuduntza ez izan, «eskolari babesa eman behar zaio eta guztien artean esfortzua egin behar da», zioen.

Olanok eskola bisitatu ondoren, eskolako ikasleek harrera egin zioten Eskola Txikien Festako abestia kantatuz. Pello Olano ikasleak Festarako diseinatu duen logotipoaren kopia bat oparitu zion ahaldun nagusiari ikaskide guztien izenean. Horren ondoren azken urtean eskolan egin dituzten ekintzen berri eman zuten argazki emanaldi baten bitartez. Mila Etxeberria eskolako zuzendariak eskerrak eman zizkion Markel Olanori «gure eskola ezagutzeko jarri duzun interesagatik». Bestalde, Foru Aldundiak Festa antolatzeko emandako diru laguntza ere eskertu zuen eta egun horretan Altzora joateko gonbitea luzatu zion.



Ahaldun nagusiarekin batera, Altzoko alkateak eta eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek argazkia atera zuten. I. GARCIA

Ahaldun nagusiak esan zuenez, «aspaldidanik egiten dugu lan, ez bakarrik eskola txikiengatik baita herri txikiengatik ere». «Gipuzkoarentzat altxor bat dira hauek edukitzea eta mantendu egin behar dira. Ikusten dugu sena badagoela eta gogoia herri txiki hauek aurrera ateratzeko. Egia da bertako herritarrak esfortzu handia egiten ari direla horrelako eskolak eta beste zerbitzu batzuk jartzten». Herri

txikiek duten nortasuna mantentzea «Gipuzkoarentzat oso garrantzitsua da», azaldu zuen, eta altxotarrak zoriondu zituen egiten ari diren lanagatik.

«Herriaren bihotza»

Mikel Olano Santillazpi guraso elkartearen lehendakariak eskerrak eman zizkion ahaldun nagusiari herrira joateagatik. Herri guztia Festa antolatzen buru-belarri

murgilduta dagoelagoratu zuen eta ekainaren 13ko eguna «festa bat izatea» nahi zutela eta eskola txikien izaera aldarrikatu zuen: «Eskolak herri txikien bihotza dira. Eskolak Altzori ematen dio dena. Altzo biziarekin sentitzen da. Herri txiki hauen nortasuna finkatuz haurrak hezte da helburua eta horregatik da hain garrantzitsua herri txikiaren eskolak izatea».

Bigarren kanporaketa hasiko da Herriartekoan

ERREDAKZIOA

Herriarteko Txapelketaren bigarren kanporaketa hasiko da asteburuan. Eskualdeko lau herrik aurrera egin dute eta joaneko partidak jokatu dituzte gaur, bihar eta etzi. Guztiak etxean jokatu dituzte. Beraz, itzulerako partidak aurkarien frontoian jokatu behar dira.

Alegiak eta Tolosak gaur jokatu dituzte, etxean, beraien norgehiagokak. Alegiak Azkoitia hartuko du 19:00etan. Tolosak azpei-

tiarren aurka jokatu du 19:15ean Beotibarren. Amezketak bihar jokatu du herriko frontoian Herriartekoan aurka. 18:00etan hasiko dira partidak.

Eskualdean azkeneko partida Albizturren izango da. Donostia hartuko dute herriko frontoian etzi 11:30ean. Itzulerako partidarako Albizturren autobusa antolatu ari dira Donostiara joateko. Udaletxera joan behar da eta bost euro ordaindu izena emateko. Maiatzaren 5a da azken eguna.

2. SELAKO ETXEBITZAK, TERRAZA ETA TRASTELEKUIAREKID.

786.000€

EUROTIK HASITA

Lein lein kanporaketako bigarrena, bihar, astelehen eta ostegunetik hasita, bertako herriartekoan, plaza eta parketara joango dira.

Beasain, gaurko eta bihar, ostegunetik, ostegunetik, 19:00etan.

Herririk bihurtu behar du.

Behar duen herriartekoan.

2. eta 3. etxebizitzak erantsita.

Mai. 654 23 75 24
Mai. 650 41 11 17
comercial@grupelbar.com

GE
GRUPOLBAR

WWW.GRUPOLBAR.COM

maiatzak
langileon
borroka
aldaketaren indarra

LAB
Beasain

12. gozeta man festazia
Beasaingu tren geltokitik Ordizako
Udaletxeko plazara Ondooren bazkaria

Atzo goizean inauguratu zuten Herri Eskolako ikasleek egindako eskultura; ikasturtean zehar, eskulanetan landu dute egitasmoa; honela irakasgaia beste modu batera landu dute.

Alkizak badu bere totem-a

ESTI EZEIZA

Totem-a objektu, izaki edo naturaz gaindiko animalia da. Mitologian eta zenbait kulturetan tribuaren edo norbanakoaren ikur gisa hartzen da. Honek, ezaugarri eta esanahi oso desberdinak izan ditzake. Hala, atzotik, Alkizak badu bere Totem-a, eta hau herriko txikienek egina izan da. *Etxe animaliak* jarri diote izena herriaren sorreran jarri duten artelanari.

Atzo goizean inauguratu zuten Alkizako herri eskolako 36 ikasleek egindako eskultura. Ekitaldian hasieran, haurrek, egitasmoaren nondik norakoak azaldu zituzten, eta ondoren, totem-ari olerki bat irakurri. Jai giroan eman nahi izan zioten ongi-etorria «herriko bizilagun berriari», eta horretarako, hamaiketako, musika eta buruhandiak ez ziren faltatu.

Eskulanak beste era batera jorratzeko asmoa

Totem-a egitearen asmoa ikasturte hasieran jaio zen. Koldobika Jauregi eskultore alkizarrak proposatu zuen eta guraso batzordearen nahiz irakasleen oniritzia jaso zuen. Herri eskolako zuzendariaren esanetan, aurten, «eskulanak beste modu batean jorratu nahi izan ditugu».

Eskulanen irakasgaiaren baitan aritu dira lantzen totem-a. Lehendabizi, irakasleek, irudi bat pentsatzeko proposatu zieten ikasleei, eta hauek marraztu. Jarraian, beraien aukeraturako materialarekin irudi

hori bolumentera pasa zuten. Batzuek kartoia erabili zuten horretarako, beste batzuk, yogurt poteak, botoiak, alambrea, galtzerdiak, zintak eta gehiago. Honela, bakoi-tzak lan bat eraiki zuten.

Dena den, helburua, eskultura bakar bat, totem bat osatzea zen. Hori dela eta, hurrengo pausoa, lan guztiak elkartu eta denekin pieza bakarra sortzea izan zen. Lehen Hezkuntzako ikasleak elkartu zituzten totem hori osatzeko. Hala, berariaik sortutako gauzak elkartzeko joan ziren, Koldobika Jauregiaren laguntzarekin. Ikasleek aitortu zuten, «hasieran itxura kaxkarra izan arren saioa bukatzerako forma oso polita» eman zioten.

Eskolan sortutako eskulturari azken ukituak artista alkizarrak eman zizkion bere tailerlean. Izan ere, totemaren iraupena ziurtatzeko, eta sendoago egiteko, Poliesterearra pasa zuen ikasleen sorkuntza. Azkenik, margotzeari ekin zioten alkizarrak. Honetarako kolore ugari erabili zituzten, eta hainbat nahasketa egin. Orain herriaren sorreran kokatu dute totema, Alkizara joaten den orok, segituan ikusi dezan.

Totema sortzeaz gain, honen jatorria eta esanahia ere landu dituzte Lehen Hezkuntzako ikasleek. Izan ere, aipatu bezala, egitasmo honekin, ikasturte honetan eskulanen arloa beste modu batera landu nahi izan dute. Hau da, ohiko programa bakarrik jarraitu beharrean, beste ikuspuntu batetik jorratu.



Atzo goizean inauguratu zuten 'Etxe animaliak' izeneko totem-a. E. EZEIZA

Laburrak

Gaur gaztetxean, poesia errezitaldi iraultzailea

IBARRA ● Maiatzaren 1aren harira Autoeskola Antikapitalistak poesia errezitaldi iraultzailea antolatatu du. Ekitaldia gaur gauetan, 22:30etik aurrera izango da, Ibarrrako gaztetxean. Bertan, poesia, musika eta irudiak uztartuko dituzte. Bestalde, bihar, LAB sindikatuak deituta Beasainen egingo den manifestaziora joateko deia luzatzen diete herritarrei.

Txapin Festaren inguruko bilera gaur, Zerkausian

TOLOSA ● Aurten ere Txapin Festa ospatuko da Tolosan. Oraingoan, maiatzaren 15ean izango da. Berrikuntza gisa, Oria ibaiko baltsa jaitsiera egingo da. Honekin antolatzailerak, duela urte batzuk Tolosan koadrila egunean egiten zen ekimena berreskuratu nahi dute. Gai honen inguruan hitz egiteko, gaur bilerari informatiboa egingo dute Zerkausian, 19:00etan. Antolatzailerak esanetan, «batzar irekia izango da eta dei berezia egiten diete baltsa jaitsieraren sorreran antolaketa lanetan aritu ziren tolosarrei».

Izaskungo Santutegian egunero Meza ospatuko da

IBARRA ● Ama Birjinaren hilabetea dela eta, hirurogei urte baino gehiagoko ohiturari jarraituz, Meza izango da egunero Izaskungo Santutegian, maiatza guztian zehar. Astegunetan, 06:45ean izango da elizkizuna eta igandee-tan, 11:00etan. Bihar berriz 09:00etan izango da.

Innere taldearen kontzertua gaur, Kikaran

TOLOSA ● Gaur Kikara tabernan Iruñeko Innere taldea entzuteko aukera izango da. Kontzertua 21:30ean hasiko da. Pop-rock musika egiten dute nafarrek.

Hilberria

XABIN IRIBAR BERASALUZE



Zurekin beti umoretsu dantza eta kanta, zirikatze gairik ez zitzaizun falta, hitz batean esanda osaba aparta.

Ilobak: Arkaitz eta Irati, Oihana eta Mikel, Ainhoa eta Shanti, Beñat, Amets, Anuska eta Inigo, Josu eta Izaskun, Nerea, Maider eta Erik, Jon, Ander eta Mikel.

Elizkizuna GAUR, Salbatore Deunaren elizan, arratsaldeko 18:30ean izango da.

GETARIA
2010eko apirilaren 30a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHOZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

'Egunkariako' absolutzioa irmoa da, baina auzi ekonomikoa falta da

'Egunkaria auzia' AVT eta Dignidad y Justicia herri akusazioek ez dutela helegitea aurkeztuko argitu zuten atzokoan.

ERREDAKZIOA

Atzo eguerdian Madrilan egindako agerraldian **Egunkaria auzian** herri akusazioa egin duten AVT eta Dignidad y Justicia Goreanen ere galdutako argitu zuten, eta beraz, ez dute **Egunkaria auziko** absolutzio epaiaren aurkako helegiterik jarriko. Aipatu behar da, bi herri akusazio haien ekimen hutsez izan zela kazetaren itxiera kasuko epaiketa. Espainiako Auzitegi Nazionalak hilaren 12an jakit-

narazi zuen sententzia. Auzi ekonomikoak aurrera jarraitzen du, hala ere, eta herri akusazioek «borrokan» segituko dutela hitz eman zuten atzokoan.

Era berean, orain helegitea sartu eta galduko balute, 20.000 euroko kostu judicialak euren ordaindu beharko lituzketela argitu zuten AVTko abokatuak.

Auzi ekonomikoan zer?

Auzi ekonomikoa zabalik dago, hala ere -zortzi lagun daude auzi-petuta, tartean Tolosan bizi den **Begoña Zubelzu**. Dignidad y Justicia zentzu honetan «Al Capone behin ere ez zuten zigortu hilketengatik, baizik eta iruzur fiskalengatik. Ez dut konparaziorik egin nahi, baina saiatu egingo gara»,

azaldu zuen atzo. Epaiketa Auzitegi Nazionalan izateko ahalgintza egingo dituztela ere esan zuen Dy.Jk. «Auziak zazpi urte daramatzalako auzitegi honetan eta hemen egin behar delako epaiketa».

Defentsak, aldiz, kasua Auzitegi Nazionaletik Donostiakora pasatzeko eskatu izan du. Izan ere, **Egunkaria**-ren itxiera kasuko absolutzioaren bidez «ustezko terrorismo delitu» desageratu egin da eta egoera juridiko berrira sortu. Hau da, «ohiko delituari» dagokion auzia litzateke», zioten itxierako auzi-petuek hilaren 13an.

Auzitegi Nazionalak ez du 'ohiko delituak' epaitezko eskuduntzarik iruzurraren eginazana egotzen diete zortzietik.

Elkarretaratzeak azken ostirala dela eta

ERREDAKZIOA

Gaur izango da hileko azken ostirala eta ondorioz, beti bezala eskual presoen eta euren familien egoera salatzen eta Euskal Herrira gerturatzen eskatzeko elkarretaratzeak izango dira bi eskualdetako hainbat herritan Amnistiairen Aldeko Mugimenduak deituta.

Era berean, gogoratu behar da, eskual presoak urtarrean hasitako borrokaldiarekin jarraitzen dutela. Zentzu honetan Joseba Fernandez eskual presoaren egoera nabarmendu dute. Izan ere, gaur 25 egun betetzen ditu gose greban. Txantreako preso Poitiersekoko espetxean aurkitzen da atxilotu zutenetik, eta bertan dagoen eskual preso bakarra da. Honetaz gain isolamendu egoeran daukate.

AAMak euren elkartasuna adierazi diote Joseba Fernandezi.

» MOBILIZAZIOAK

Azken ostiraleko elkarretaratzeak

- Aduna. 20:00etan.
- Alegia. 19:30etan.
- Amezketa. 19:30etan.
- Anoeta. 19:30etan.
- Asteasu. 20:00etan.
- Ibarra. 19:30etan.
- Ikaztegieta. 20:30etan.
- Lizartza. 20:00etan.
- Orendain. 20:00etan.
- Tolosa. 19:30etan.
- Villabona. 20:00etan.
- Zizurkil. 20:00etan.
- Leaburu-Txarama. 20:15etan Leaburu plazaan.

tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com

Higiezinak ETERRITZAK
SALDIRI

Tolosa. Tolosako Aude Zaharren atze argitua. 50 m². Egoera onen. 153.260 Euro (25.900.000 ppta). Interesatzek deitu 943-43 00 20 telefono zerbaitak. Zuzeneko salmenta.

igorurmitzacoa@yahoo.es/helbidia/dati.

Lana zueguzok SAN TXAKARAK
GANDEBARRAK

Tolosa. Erreturria eskaintza lan egiteko. Telefono zerbaitak: 605-74.26.96 da.

datetan.677-834 047 edo 948-69 36 18.

Parvialetza ETERRAD THINAKALZATARIK
SALDIRI

Egongelako altzarik. Amara, 4 aukidun mahai (orobila eta host piztalak bi soto [3+2]). Cho eguna onen daude. Interesatzek, deitu 610-68 50 68 telefono zerbaitak.

kornua, sukalde-jangila eta balkoi izab ditu. Herri-eremuko gurentzako erabiltzeko daude, baita eredu-erakundeentzako. 120.000 euro. Interesatzek deitu 605-77 07 86 telefono zerbaitak.

LOKALAK
SALDIRI

Ikolan Ianaldi ALDIBATEKO LANA
Berez. 7 (zazpi komertio) • BEZAIAN
943-16 20 48
Buzi lan eskaintzak:
www.ikolanaldi.com

SEAT AUTO
nulo/ ARTIBAI / I.
SEAT - AUDI - VOLKSWAGEN

BW 120 CJ FULL EQUIP
11.000 Euro

SEAT LEON 2000 TDI 140 raki
10070 modulu, Gisa 112.500 Euro

SEAT LEON TDI 145 ZALDI BERRIA
14.200 Euro / 11 marta auzo 152 interesak

SEAT LEON 2000 TDI 140 raki
10070 modulu, Zilar kolorekoa / 112.500 Euro

WARRIOR KARNETIK GABEKO AUTOA
1.300 Euro

Errota auzo aile • Markina Xemein
Tel: 94-616 77 14 / Fax: 94-616 77 69

ARAMBURU Euzen administrazioa Higiezinen kudeatzailea
943-65 17 13 / 677-46 09 16
ALONATZEKO

- Etseka Amaretan, San Fransiskon eta Lumen, Tolosan.
- Garajak San Fransiskon, Añabato etotz, Lumen eta Euzen Zaldiban, erabaki auzietarak.

SALGAI

- Etseka, Lumen, Añabato, ingurugatik, erabaki berrak. San Fransiskon eta Añabato etotz.
- Etseka, Lumen. Zerbait moduan. Ekintza onak.
- Garaje ibilak eta ibilak Amaretan, Tolosan, Lumen eta Añabato.

Lokala, Gurentzako plazan, Tolosan.

KANPORA GUREAN
LAN ENKANTZAR

Tolosa. (Voth-Goraditi). Erakutsia berritua etxebizitza salgai (75m²). Promotorearen bidez zuzeneko salmenta. Sukalde eta 2 kamar ekipoak, egongela handi eta 2 logeja. Angulua. Komuna izaneko, berri-guztiak karpasa begira. 2 terraza eder eta baita lasterra ere. Prentziako salmenta. 658-72 92 88.

OSTALARITZA Golemi (Gipuzkoa). Zerbaiten erabilerakon behar da Goienetik jabetze berritua lan egiteko. Telefono: 943-8052 06 edo 652-75 55 71

Soto bat salgai, (hiru plaza, 2,30 m²). Soto bat salgai. Hiru plaza. Nauria 2,30 m. 608-67 09 10 (Mara).

Lanare-erria. L. auzeritako kate salgai, 48 m², Green plaza. Sarrera karpas du eta auzeritako etxebizitza berritua jarteko legeri berritua da eta komuna. Komertzio berritua ere auzeritako erabilerakon da. 110.000 Euro. Interesatzek deitu 605-77 07 86 telefono zerbaitak.

GANDEBARRAK
SALDIRI

Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak

Bokale laia, 4 • 30800 Zaroitz
Tel: 941 01 07 00 • Fax: 663 71 85 94
www.izosalbide.com

Etxebila Higiezinak

9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

ALONATZEKO
1.000 Auzeritako berritua. Logeja 1. Ingurugatik. Bakoak 7000
AMARA Herri etotz. 3 logeja, egongela, sukalde, berri-
1900

GUREN Herri berritua. 3 logeja, sukalde, 2 berri-1.000 Euro
GUREN 3 logeja, egongela, sukalde, berri-1.000 Euro
HERRI BERRITUA 3 logeja, egongela, sukalde, berri-1.000 Euro

SALBIDEA
AMARA Plus erabilerak Añabato, 200 m², Terrena. Egoera onen. 69.950 Euro
AMARA 3 logeja, egongela, sukalde, berri-1.000 Euro
GUREN 3 logeja, egongela, sukalde, berri-1.000 Euro
AMARA 3 logeja, egongela, sukalde, berri-1.000 Euro
HERRI BERRITUA 3 logeja, egongela, sukalde, berri-1.000 Euro
HERRI BERRITUA 3 logeja, egongela, sukalde, berri-1.000 Euro
HERRI BERRITUA 3 logeja, egongela, sukalde, berri-1.000 Euro

LOKALAK
SALDIRI

Irura. Lokala Irura, Lezika baliarra, N-I ondoren. 118 m² eta 78.000 Euro. Interesatzek deitu 943-72 19 47 edo 635-20 17 05 telefono zerbaitak-tanado

Arria/Arria
OPORAK/ETERRAD

Etortri Lodosa. Nafarroako Euzen erabilerakon zerbaiten erabilerakon eta herri Lodosa eta egongela berritua jarteko lan-

Gre-on (Erriotsa). Soto Domingo de la Calzada edo-dan dago Gre-on herri-eremuko salgai. Erabilerakon erabilerakon. Lehengo pisua gurentzako salgai, bigarren pisua lokalerakin eta hirugarren pisua gurentzako. Ingurugatik eta pisu bakoitzak 3 logeja.

Besain. Besainen Meritina/Mila katearen erabilerakon. 25 m² putri gona berritua. Alde automatizatutako. Interesatzek deitu 659-07 73 21 edo 605-77 07 86 telefono zerbaitak. 48.000 Euro.

Leku hau zure iragarkian zain dago

Elgielburko IMK berrituta Ingegnieria kontratuak **nahi du,**

- Ingegnieria berrituta Ingegnieria.
- Lokala auzeritako erabilerakon erabilerakon eta herri Lodosa eta egongela berritua jarteko lan-

CVA berrituta gure erabilerakon erabilerakon eta herri Lodosa eta egongela berritua jarteko lan-

Tel: 943 33 2250 Vitoria
Tel: 943 99 22 55 / Fax: 943 99 22 57
www.ingobesagati.com

A M E Z K E T A

Erakutsia berritua, berrituta erabilerakon

268.485 €

ingobesagati
SAIMETAK • BOSKETAK • AUCARAK • ASIGURAK

Aizarnazabal. 3 logeja etxebizitza. 10 metro laudroko trasteruarekin. Oro prezio onen. 31.000.000 peeta

Zaroitz. Auzeritako logeja berritua eta herri. Alde eta auzeritako. Trasteruarekin eta ingurugatik. 42.500.000 peeta

Zaroitz. Erdigunea. 3 logeja etxebizitza. Laugarren solairu ingurugatik gabe. 10 metro laudroko terraz potaterekin. Oro prezio onen. 41.000.000 peeta

Zaroitz. Vista Alegre. 2 logeja ditu. Terraza handia. Egunerak. 49.500.000 peeta

Zaroitz. Erdigunea. 2 logeja etxebizitza. Ingurugatik eta trasteru berritua. Oro prezio onen. 41.000.000 peeta

Zestoa. Arros herria. 2 logeja etxebizitza. 38.000.000 peeta

Getaria. Herri-eremuko kate. 3 logeja eta 2 berri-1.000 etxebizitza. Trasteruarekin. Egoera onen. 46.500.000 peeta

www.etxebila.net
Herri berritua. 4 • 943 22 55



16°
10°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	15°
HOTZENA	9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

- **Tolosa.** Pikorren XL Town Leidor aretoan 20:30ean.
- **Zizurkil.** Lakrikun Antzerki Elkartearen *Prest gaude!* Atxulondo kultur etxean 20:30ean (3 euro).

Musika

- **Tolosa.** Pop-rockeko Innerve taldea Kikara tabernan 21:30ean.

Jaiak

- **Oresa.** 21:30ean Oilarren jaietsierarekin Santa Kruz jaien hasiera. Ondoren herriko batukada taldea eta kantaldia izango dira.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3.943.67.09.15.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak



Urte askoan!
Intza Irizar Agirrezabala (Tolosa).

Gaur 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.

Bukatu da XI. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko aukera. Maiatzaren 8a bitarte bidalitako argazkiak publikatuko ditugu eta maiatzaren 9an jakingo duzue zeintzuk diren 8 argazki finalistak.

Portugal eta Bretainian barrena



IKAZTEGIETA • Leire Eizmendi Aste Santuan Bretainiako kostaldean izan zen. LEIRE EIZMENDI



TOLOSA • Maitane Arraiet Portugalen izan zen eta bertako zuhaitzek zerbitai berezia dutela dio, «krixton eleantea da!», argitu du. MAITANE ARRAIET



TOLOSA • Amaia Arraiet ere Portugalen izan zen: «Belem-go gaztelue! Ikearri politte!». AMAIA ARRAIET

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>